

www.100111.com
Nu!



Eguneko Zentroaren
lehen urteurrena

Aritzetako bizilagunen
testigantza

ALKARTASUNA
BASERRITARREN KOOPERATIBA

Naturalki

Janari ekologikoak
Piperminetarako ospina
Talotarako artirina
Patxaranelarako anisa
Herriko babarruna
Baba txiki beltza eta zuria
Baratzarako landareak
Herriko sagardo aukera
Baratza eta loretako liburuak
Konpostagailuak
Zabatoak
Zakur jana eta kalu jana aukera
Egur ikatza
Saski, lepotar, zare, xexto...
Ukenduak
Txorientzako kabiak
Lanerako erropa eta oinetakoak
Eta abar...

Ugarte Industrialdea, 12 Tel.: 943 36 11 14

alkartasuna@usurbil.com

arropa denda
MAHUKA

g
i
z
o
n
a



kolekzio berria



e
m
a
k
u
m
e
a

Etxebeste, 3 tel.: 943 36 11 06

STOCK
ALDATZ



Aukera paregabea gizonezko,
emakumezko eta haurrentzako
jantzietan

Alperro Buru, 2 Tel.: 943 36 34 48

ALDATZ

KIROL MODA



U
R
B
A
N
M
O
D
A

Alperro Buru, 1

Tel.: 943 36 65 42

Txirrikitutik

Euskal Herrian errepresioaren aztarna herritar askok bizi Eizan du eta zoritxarrez, oraindik bizi du. Errepresioarekin bukatzeko sistemarik eraginkorrena elkartasuna dela ezin dezakegu ukatu. Usurbilgo Etxerat! eta Errepresioaren aurkako taldeak Herriak Badaki liburuan garbi azaltzen digute urteetan herritar asko aritu dela lanean, era antolatuan, eta horretan jarraitzen duela gaur egun ere atxilotuei, torturatuei, preso eta erbestean daudenei, epaituei eta hauen guztien senitartekoei elkartasun hori helarazten.

Horren adibide 2002ko urtarrilaren 23an ateratako argazki honetan ikusten duzuen da. Patxi Seguroლა Maioz usurbildar presoak 25 egun baino gehiago zeramatzan gose greban. Egoera hau salatzen asmoz "Solidarioek" N-624 errepidea (Atxegalde auzoaren parean) 15 minutuz moztu zuten, euskal presoen eskubideen aldeko ekintza bat eginez. Errepidearen mozketan parte hartu zuten aerolitoz jantzitako zortzi solidarioetatik, lauk izotz blokeetara lotu zituzten euren buruak aerolitoak balira bezala. Beste bi solidarioek "Euskal Herriko aerolito solidarioak. 27an greba orokorrera" zioen pankarta eutsi zuten eta beste biiek berriz, presoengandako informazioa banatu zieten auto gidariei. Solidarioez gain, beste berrogei herritar errepide ertzean egon ziren presoengandak. Ertzaintza azaldu zenean, solidarioak



EGILEA: NOAUA! K.E., 2000-01-23, N-624 ERREPIDEA
JABETZA: NOAUA! K.E.

errepide bazterrean eraman eta identifikatu egin zituzten.

Presoen eskubideen aldeko protesta-ekitaldi hau egiteagatik, zortzi solidarioek 800.000 pezetako isuna jaso zuten baina elkartasunaren doinuak Patxi eta gainontzeko euskal presoenganaino iritsi zirela garbi geratu zen.

Zalao Arnaiz Iburguren

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteke egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea: Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Publizitatea: Maialen Saez, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieto, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteke jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Iñaki Salsamendik eginiko irudian ageri da balizko kokagunea.

Aurkibidea

ZUTABEAN, IDOIA TORREGARAI	4. ORR.
BERRIEMAILEAK KALEJIRAN	6. ORR.
KULTUR ASTEA, AZKEN TXANPAN	10. ORR.
ARITZEKO BIZILAGUNEN TESTIGANTZAK	12. ORR.
Errauste-plantaren egitasmoaz asko hitz egin dugu. Baina lehen aldiz, Aritzetan bizi direnen hitzak bildu ditugu.	
IBON BERISTAIN ZINEGOTZIAREN HITZAK	15. ORR.
KZGUNEN IKASTAROAK AZAROAN	16. ORR.
SERGIO MONTES, JUDO TALDEKO KIDEA	17. ORR.
GURUTZEGRAMA NOAUA! TXIKIN	18. ORR.
EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN	22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



IDOIA TORREGARAI

Koloretako kazetaritza

Edozein egunetan telebista piztu eta ia ezinezkoa da “prentsa arroxeko” programetatik ihes egitea. Hortxe dauzkagu telebista eta “kazetaritzako profesionalak” ez-dakit-zein batekin oheratzen den erretransmititzen edota beste-hark zenbat karies dituen baieztatzen. Ez naiz orain hasiko programa hauek zergatik duten hainbesteko arrakasta aztertzen (nahiz eta gutako inork inoiz ez dituen ikusten, ezta?), nire hausnarketa (gaur egun) kazetaritzak bizi duen izen txarretik bideratu nahiko nuke.

Gaur egun eta lehen pertsonan esan dezaket, ofizio gutxi dutela kazetariena baino fama txarragoa (beno, burura pare bat etortzen zaizkit, bai). “Kazetaria zara?—galdetzen dizute, eta segituan—honi ezer ez esan, bestela hortik dena esango du eta—botatzen dizute erdi brome-tan, baina badaezpada ere. Kazetaria egun (nire ustez behintzat) gezurti, manipulazaila edota “kotilla” bat bezala ikusia dago, eta egia esan behar badut, ez da harritzekoa.

Alde batetik hasieran aipatu ditudan programa oroboteretsuek kazetaritza arinkeriarekin, kaskarinkeriarekin lotzen dute, egunerokotasun eta pribatutasuneko hainbat gai “notizi” eginez. Baina ikusi, ikusi egiten dira programa horiek... Baina “prentsa arroxak” ez da kazetariari izen txarra ematen dion bakarra, ez. Badago

beste kazetaritza bat, batzuk “serioa” deitzen dutena ere mesede gutxi egiten duena (kazetaritza beltza deituko nioke nik). Ikusi besterik ez dago duela aste gutxi batzuk hainbat medioek lau euskal sukaldariei egin zieten akusazio eta epaiketa. Oraindik ezer frogatuta ez zegoenean, oraindik sukaldariek beren burua defendatzeko eskubiderik izan ez zutenerako, epaiketa eta kondenak publikoak egin ziren prentsa “serioak”.

Jarri ditzagun gauzak bere tokian. “Prentsa arroxak” deitutakoa gehiago lotzen dut entretenimenduarekin (hitz bat esatekotan) informazioarekin baino, eta bestetik, argi eduki dezagun: kazetariak eta medioak ez dira orojakileak ez infalibleak; bitartekariak dira batez ere (ezin ditugu beste funtzio batzuk ere ahaztu, iritzi sortarazleena, adibidez). Hau da, gertaera bat eta gizartearen arteko zubi lanak egin beharko lituzkete, baina noski, lehendabizi gertaera hori interes publikokoa dela neurtu behar da eta bigarrenez, BETI iturri desberdinak kontuan hartu beharko lirake.

Hala ere zorionez, gure inguruan oso gertu ditugu kazetaritza eredu txalogarriak; gure inguruko hainbat medioetan lana ondo eta zintzo egiten duten profesional asko ditugu. Horregatik, mesedez, ez sartu zaku berean medio eta kazetari guztiak. Ez al da horrela Martin?

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idóia Torregarai

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, **NOAUA!**k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Azaroak 19. **Idatzia ekartzeko azken eguna:** Azaroak 12.

Postaz: Noaua! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

e-posta bidez: erredakzioa@noaua.com



EUSKAL OKELA

h k k l , 4
T H 433 6742

UT ZE

ETXK

LK

T

ITZU

F IT K

ZKI K

IKTU K

K NOEL TU K



Usurbil Autoak, S. C. L.

Zarbatzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Urtebete egin du Eguneko Zentroak

Eguneko Zentroa duela urtebete ireki zen. Orain, Gizarte Zerbitzuek ekitaldi berezi batekin ospatu nahi dute urteurrena. Ospakizuna Eguneko Zentroan bertan egingo da, azaroaren 13an, larunbata, eguerdiko 12:00etan hasita.

Etxean bizitzen jarraitzen duen jende helduaren artean, bada egunean zehar laguntza premia handia duenik. Horientzat leku aproposa da Eguneko Zentroa. Laguntza pertsonala ez ezik, psikologikoa eta emozionala ere bermatzen delako. Bost lagunekin abiatu zen Eguneko Zentroa eta gaur egun ia plaza guztiak beteta daude (guztira 12 lagunentzat prestatuta dago egungo zentroa). Zerbitzuak arrakasta izan duen seinale.



BOST LAGUNEKIN ABIATU ZEN EGUNEKO ZENTROA ETA GAUR EGUN IA PLAZA GUZTIAK BETETA DAUDE.

9:30etatik 18:00ak arte

Astelehenetik ostiralera, goizeko 9:30etan hasi eta arratsaldeko 18:00ak arte zerbitzu ezberdinetaz gozatzeko aukera dago: errehabilitazio fisiko, psikiko eta soziala, asistentzia soziala eta sanitarioa... eta, nola ez, bertako langileen laguntza eta babesa.

Honi lotuta, urrian eginiko ohiko udalbatza plenoan, Eguneko Zentroko arautegia eguneratua izan da.

Etxebizitza Sozialen esleipena

Bestalde, udal jabegoko etxebizitza sozialen gaineko eskubideak esleitzeko bete beharreko lege, ekonomi eta admi-

nistrazio baldintzak jada GAO n iragarriak izan dira (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean).

Beraz, etxebizitza sozial hauetan sartzeko izen-emate epea zabalik dago jada. Epea azaroaren 30ean amaituko da, eguerdiko 13:00ean.

Urriako udalbatza plenoetan hartutako erabakiak

Urriaren bitan bildu da udalbatza plenoa. Urriaren 22an, ez-ohiko deialdian; eta urriaren 26an, hila-beteroko ohiko deialdian.

Urriaren 22an egin bilkuran, Haur Eskolaren prezio publikoak aztertu ziren. Tarifa berriak 2005. urte

hasieran sartuko dira indarrean.

Urriaren 26an, ohiko udalbatza plenoan, ondoko aztergaiak izan ziren mahai gainean. Batetik, egoitzazko hiri lurzorutzat tinkotutako eremu zehatzetan kokatutako merkataldegietan tertziario erabileratik egoitzazkora aldatzeko ordenantza-ren erregularizazioa. Bestetik, irрати-

komunikaziorako instalazioen ezarpena eta funtzionamendua arautzeko ordenantza.

Halaber, Usurbilgo Eguneko Zentroko Arautegia hasieraz onartu zen.

Pleno horretan bertan, bake epaile titularraren eta bere ordezkoreen izendapena ere aztertu zen.

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

PATRI

JATE TXEA

- Eguneroko menuak
- Plater kombinatutak
- Ogiak

Telf: 943 36 27 25
Kale Nagusia, 14

TXIRIBOGA

TABERNA

ntx k, k t k
t l t r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Udazkeneko kontuak

*P*ilarica egunez, ehiza garaia baimendu zutenetik, gure auzoko mendiak, batez ere asteburuetan, ehizariz beteak egon ohi dira. Izan ere, azkenaldiko eguraldiak, hego haize epelak erraztu egin du aurtengo usoen pasatzea eta goiz goizetik entzuten da sekulako tiro hotsa. Ez da giro zenbaitetan, gerra dirudi! Askotan pentsatzekoa da pasatzen den txori orori tiro egiten ote dioten, baina oraingoan badirudi uso dezente ekarri dutela etxera bueltan, lumatu eta afari goxoak egiteko. Hala ere, botatako pieza guztiak ez dituzte biltzen. Bada Andatzara goizean bueltaxka bat egitera atera, tiro hotsak batetik eta bestetik, eta hara non ze topatuko bidean eta ehizariren batek bota eta bertan gelditutako usoa aurkitu izan duena. Mendira atera ezker, etxera zerbaitekin bueltatzen dela esan zuenak egia galanta esan zuen, perretxikoak ez badira gaztainak; eta orain, usoak.

Bestalde azken hilebetean auzoko baserritarrak bere sagarrondoko sagarrak bildu dituzte, gehie-

nak saltzeko eta gutxi batzuk, tolaireak dutenak, beraiek joaz sagardoa egiteko. Aurten nahikoa lan izan dute sagar guztiak biltzen, uzta oso ona izan baita. Urtero bezala, *Sansebastianen* inguru ikusi beharko dugu zer nolako sagardoa dastatzeko aukera izango dugun. Ederra etor dadila, denok gozatzeko. Orain, berriz, soroan eguraldia lagun, azken babarrun aleak eta artaburuak etxeratzen ari dira. Babarruna ere izugarri bildu da.

Bukatzeko, urria agurtu dugunean ordua aldatu egin behar izan dugu. Orain negua gainean, arratsaldeak motzagoak izango dira eta bapatean iluntasuna nagusituko da egun askotan. Irabi aldean paseotxoak egiten ibiltzen den jendeak ere nabarmenduko du hor ez baitago argirik bide bazterrean. Portzieto, urtero bezala, Behobia-Donostia gerturatzen ari den heinean, nabarituiko dugu korrikalari kopurua handitzen, lasterketa prestatzen ari den korrikalari ugari gure ingurua aukeratzen baitu. Usurbildik izango dira hainbat partaide, ea ondo prestatzen diren.

Bertso-afaria giro ederrean

IÑAKI
AGIRRESAROBE

Kaleberri

*J*oan den urriaren 23an, Zendoia Tabernan bertso afaria zegoen iragarriarik. Jon Maiaren orde (aurten Usurbila etortzen ez den hirugarren aldia), Aitor Mendiluze etorri zen eta bestalde, Mantxi. 30 lagun bildurik, giro aproposa eta lagunartekoa. Bi saio egin zituzten, lehengoa ordu eta laurdenekoa, eta bigarrena 40 minutukoa. Saioa ordubietan amaitu zen. Lehenengo zatian, bertaratutako guztiei banan-bana errepassoa eman zieten bertsolariek. Guztiei buruz zerbait esateko bazutenez, egundokoak entzun behar izan zituzten bildutakoek.

Bigarren zatian, aldiz, gai orokorrei buruz aritu ziren, bizi-bizi Mendiluze galderak eginenez eta Mantxi ahal zuen neurrian erantzuten. Saio paregabea suertatu zen eta duten maila agerian utzi zuten, batez ere

Mendiluzek.

Bestalde, Urriaren 30ean eta 31ean Usurbilgo ordezkari zabalak (30 lagun inguru) izan zen Zuberoako Urdiñarbe herrian. Batzuk ostiraletik joanda Aitor Udabe eta Jabito trikitalariak "Amaren alabak" ikuskizunean parte hartu zuten.

Larunbat arratsaldean, herriko pilotariak Zuberotarren aurka jokatu zuten Urdiñarbeko trinketeen giro ezin hobean. Iaz hasi zen pilota partiden bitarteko harreman honek jarraipena izan zuen. Gauean, aldiz, urterik urte egiten den herri afaria. Guztira ehundik gora pertsona bildu zen. Bertan, afaria usurbildarrek prestatu zuten (aurtengoarekin 5. urtea) eta afalostean kantua eta dantza ez zen faltatu.

Bi herrien arteko harreman honek etendura ez dezala izan.

Leihotik begira

Kaixo oraingoan ere irakurle guztioi. Honakoan ere, nire txanda iritsi da. Leihotik begira jarri naiz eta Usurbil ikusi dut, zein ederra den dena! Gainera Aranerekaren zati txiki bat ere ikus dezaket, zein leku ederra den, azken boladan joan izan naizenean oso polita ikusi izan dut, erreka bera ere garbiagoa dagoelarik. Aranerekaz gain, gora aldera begiratzen badut baserri batzuk ere ikus ditzazket, baita Arratzain eta Bordatxo ere. Zubieta aldera begiratzean ere, paisaia zoragarria ikus dezaket.

Eta, pentsatzeak hemendik urte batzuetara ezin izango dudala orain ikusten dudanaren erdia ere ikusi, ikaragarritzko pena ematen dit. Kalezar, denbora gutxian ikaragarri hazi da eta gu konturatzerako sekulako etxe pila eraikiko dituzte, lehen aipatu dudan Araneerreka, adibidez, etxez inguratuta geldituko da, a ze pena! Betiko Kalezarrek beste Kalezar bat dirudi, baina hemendik aurrera ere geroz eta gehiago aldatuko da.



Handitzen doan heinean, bide berriak ere egin dituzte gure auzoan, herrira jaisteko. Honekin zera esateko aprobetxatu nahi nuke; eskilarak oso ondo daude, baina "eskilara berrietan baranda bat falta da, baranda bat egongo balitz askoz ere erosoagoak izango lirateke".

Besterik gabe, mila esker eskeinitako arretarengatik eta hurrengorarte.

Kalezar



**ALOÑA
PULIDO**

Errotonda berria nolakoa ote?

Heldu zait beste behin Here zuei gure auzoaren berri emateko aukera. Udazkena aurrera doan bezala hotzak gero eta gehiago bisitatzeko gaitu eta azken egun hauetan ez da bakarrik etorri. Gehien gustatzen zaiona bere lagun haizearekin etortzea da eta batzuetan euria ere eurekin ekartzen dute. Zuhaitzekin jolastea oso gustukoa dutela dirudi, hauen hostoak hartu eta hara eta hona ibiltzen baitira kale guztietatik barrena.

Baina azkenaldian ez bezala Atxegaldeko kaleek beste ezohiko bisitak izan dituzte: obrak, eta oraindik ere batzuetan murgilduta dira. Oraingo honetan Atxegaldek azken aste hauetan izan dituen aldaketa festa komen-



tatu nahi nizueke. Izan ere, duela gutxi Mahaspildegiko aparkaleku inguruko espaloiekin argiak aldatu zituzten, gaintzeko auzoarekin bat itxura berdina izan zezan eta txukunago gera zedin. Zonalde hori beti izan da oso zikina eta utzia eta

behintzat orain beste itxura bat hartzen du.

Orain, berriz, errotonda berri bat ari dira eraikitzen Kale Nagusian eta honek ere eragiten digu zeharka bada ere. Errotonda honek izango duen forma zein izango den jakitea da batzuen jakin-mina. Usurbilen errotonda nahiko xelebreak egiteko joera dagoela nabarrena da baina ea oraingoan zerekin egiten dugun topo.

Atxegalde



**AINARA
ARNAIZ**

ALEX
TELLO

Santuenea

Santuenean ere jolastu daiteke

Haurra nintzela, Santueneako eskubaloï pistak Herrian erakargarritasun jakina zuen. Aterperik gabea, gune zabala eta irekia, primerakoa edozein jolas eta kirolerako, hala nola, eskubaloia, futbola, saskibaloia (bi aro zatar haiek non ote?) eta abar. Euriarekin oso irristakorra gertatzen zena ahaztu gabe. Bertan, esertoki ugari zuhaitzen itzalak babestuak ere.

Eskubaloïko gunea hamasei urte hauetan kasik aldatu ez den arren, jadanik ez da garai batekoa. Eskubaloïaren jarduera guztia kiroldegian kokatzeak, auzo-giroaren gainbeheran eragin zuen.

Egunero Santuenean mugimendua zegoen: partidak, entrenamenduak, txapelketak... Motiboa, kalera irten eta auzoekin 'denborapasan' egoteko. Egun, haur bat edo beste eta tarteka inor bertan (eta parkean) egon ohi da, baina, tabernak, elkartea, dendak, sagardotegia (jende askoren bilgune) eta bus geltokia dira helduen topagune nagusiak.

Bestetik, aldameneko parkearen berrikuntza lanak aurki hasiko dira. Eremu osoa hesitu (honela, erre- pidera jaisteko eskailera edo pasabide arriskutsua

itxita), zuhaitzei adarrak moztu eta bankuak, kulunkak, txirristra txikiak eta bestelako jolas aparailuak eraman dituzte. Ea inguru horri itxura polita eman eta probetxuzkoa egiten duten. Ping-pong mahaia ondo legoke, baita nolabaiteko kulunka helduek haurrekin batera jolas edo elkarrekin dezaten. Adibidez.

Parkea eraberritu bitarte, garai bateko haur eskolako gela bat zabalik dago. Ordezko aukera haur eta gurasoek arratsaldea igaro ahal izateko, batez ere eguraldiarengatik ezeroak gerta daitezkeen egunetan. Auzoko alternatiba etxean ez gelditzeko, herriko frontoia edo Askatasuna plazara joateak merezi dezakeelarik, auzoko eta herriko haurrei Santuenean ere jolas dezaten gonbitea luzatzen diet. Noizbehinka Santuenean eta herriko auzoetan jarduerak antolatu izan dira, eskerrak, Santueneak bizia eta euskal giroa behar baititu!

Azkenik, orain urte gutxi Santuenean bizitzen dagoen bikote gaztea agurtu eta zoriondu nahi dut, ezkontzarako San Estebanen ermita aukeratu zuten. Bai leku polita!

Udazkenean San Estebanen zer berri?

NEREA
AIZPURUA

Urdaiaga

Agur bero bat guztioi Andatzaren magal Ahonetatik!

Uda amaitu eta berriz ere hemen nauzue bueltan gure auzoaren berri emateko prest. Egia esan, ohikoa den bezala, ez da gauza handiegirik pasatzen gure paraje hauetan. Datorren urterarte agurtzea kosta egiten zitzaiola eta udak ere bere azken egunak eskaini nahi izan dizkigu. Izan ere, azken asteotan eguraldi ona eta tenperatura altuak izan ditugu lagun.

Eta urte garai honetan ohikoa den bezala, izan da mugimendurik gure txoko hauetan ere.

Udazkenarekin batera, sagardoa egiten hasteko garaia heldu da. Mama gozoa gustora edaten dugun arren... aurrez lan handia egin behar da aizue! San Esteban alde honetan sagasti ugari dugu eta irailean hasita jende ugari ibili da sagar biltzen. Batzuk sagardogileei saltzen diete bildutakoa eta gutxi batzuk baserrietan sagardoa egiteko ohitura mantentzen jarraitzen dute.



Bestalde, Andatzara perretxiku bila joan direnak ere badira. Goizean-goiz esnatu eta inork aurre hartu baino lehen, Andatza txokoz-txoko miatzen dute batzuk.

Eta perretxikuak eta sagarrak behin aipatuta... ehiztariei ere egin beharko zaie aipamena. Arratsaldean nahiz goizean, tiro hotsa entzun liteke gurean.

Gutunak

Udak alde egin ostean, San Praixkuak ere bukatuta, negu iluna datorkigu, alaitasunak eta kolore argiak alde batera utzi eta neguko arropa iluna armairutik atera eta babarrun beroak jateko garaia da.

Hala ere, tristuran erori beharrean, nik urtaro bakoitzari bilatzen diot bere xarma!

Hau dena polita bada ere, NOAUA!k ematen didan aukera aprobetxatu asmoz, herritarrei gogorarazi nahi nieke badirela gure herritarrak urtaro bakar bat ezagutzen dutenak: gartzelakoa. Hau aprobetxatu asmoz, aginagatar guztioi animatzen zaituztet hauei gutun bat idaztera, seguru Xomorro, Simio eta Jokinek ("Termi" *Agiñako* lagunaren artean) eskertuko dutela.

Aurten, gainera, gogoratu Simio atxilotu zutela bost urte bete direla. Ea ba negu honetan herriko presoak zuen gutunak jasotzen dituzten eta gertuago sentiarazten dituzuen.

Xabier Aranburu Muguruza
C.P. Herrera de la Mancha
Modulo 2 / Apartado 77
13200 Manzanares
Ciudad Real

Patxi Segurola Maiz
Número 12172
M. D'arret de la Seine-Saint Denis
Avenue Vaovan – 93422
Villepinte – Cedex
Paris- Francia

Jokin Errasti Elorza
Módulo 1
Centro Penitenciario Alama
Monte Racero S/N
36830 Pontevedra

Aginaga



**OSKAR
SANTAMARIA**

Kilometroak Zubietan

Oraingoa dela hilabete, Kilometroaren festa ospatu zen Zarautz-Orioko ibilbidean. Bertan, urtero ohi den bezala, ehun mila pertsona baino gehiago bildu zen. Izugarritzko muntaia izaten da ekitaldi hau.

Nik, beste Kilometroaren festa bat ekarri nahi dut gogora, hain zuzen ere, 1978an Zubietan ospatu zena, ona izaten baita urteak pasa ondoren aurreneko Kilometroak haiek, gaurkoekin alderatzea; eta bestetik, interesgarria iruditzen zait gure herriaren gertaera zaharrak noizbehinka gogora ekartzea.

1978an, bigarreneguz ospatu zen Kilometroaren festa. Gure herrian izan zen, eta bildutako dirua, Axular, Bilintx eta Ibai lizeoentzat izan zen.

Gure herrira, hainbat pertsonaia ospetsu hurbildu zen, kronikek diotenez, hala nola: Joxe Miel Barandiaran, Nestor Basterretxea, Joseba Elozegi, Realeko jokalaria... Iturengo ttuntto-roak ere bisitari izan genituen.

Hala ere, eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu ez, izan ere, eguraldi goibel eta euritsu batekin ekin zioten ibiltariak sei kilometroko zirkuitoari.

Zubietako Kilometroak, bigarreneguz egiten dute historian. Lehenbizikoa, Beasainen antolatu zen, eta hango ikastolaren partaide bati bururatu zitzaion ideia, Estatu Batuetatik kopiatuz. Dirudieneguz, han halako zertxobait egiten zen, kilometroak pagatuz ekintza baterako dirua ateratzeko, eta Euskal Herrira ideia ekartzea posible zela iruditu zitzaion... eta bai asmatu ere.

Oraingoa perspektibarekin ikusiz, ezinezkoa dirudi horrelako festa erraldoi bat herri txiki batean ospatzea, azpiegitura zabala eskatzen duelako eta azken urte hauetan, Kilometroaren festa, beti herri ertain-handietan egiten dela ikusi dugu. Horrek adierazten digu, nola hazi eta errotu den ekintza hau.

Zubietan



**MIKEL
BENGOETXEA**

Antzerki umoretsua eta perkusio jaialdia, Kultur Astearen azken txanpan

Kultur Astea hasi baino ez da egin. Azaroaren 3an, Jose Ramon Agirre "Marron" mendizaleak eskainitako diaporamaz gozatzeko aukera izan genuen. Kike Amonarriz, Asisko Urmeneta eta Antton Olariagaren "Euskaraz lardas-katzeko manerak" hitzaldiaz gain, beste bi ekitaldi ditugu zain: Patxo Telleria eta Mikel Martinezen antzerki saioa eta Ttakunpa taldearen kontzertua.

Urtean zehar hainbat kultur ekitaldi antolatu ohi ditu NOAUA! Kultur Elkarteak. Honakoan, Udalaren laguntzaz, aste osoko kultur eskaintza aurkeztu ahal izan dugu.

"Euskera senzilloaren manifestoa" antzerkia emanaldia, azaroaren 5ekoa, Udarregin izango da. Baina Ttakunpak azaroaren 6an eskainiko duen kontzertua, berriz, pilotalekuan egingo da.



TTAKUNPA TALDEAK PERKUSIO AFRIKARRA ETA TXALAPARTA UZTARTZEN DITU ZUZENEKO EMANALDIETAN. TTKUNPA TALDEA AZAROAREN 6AN IZANGO DA, PILOTALEKUAN, GAUEKO 22:30EAN HASITA.

"Euskera senzilloaren manifestoa", ironiaz jositako antzerki saioa

Gure herrian, antzerki emanaldiei harrera berezia egin ohi zaie. Azken bolada honetan behintzat hala izan da. "Kutsidazu bidea Ixabel" eta "Zazpi gezur txiki" antzezlanetan lagun asko bildu genituen. Orain gauza bera espero dugu Bikoteatroa taldearen emanaldiarekin: "Euskera senzilloaren manifestoa".

Kultur Astearen azken txanpan, beraz, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreen umoreaz gozatzeko aukera izango dugu. Udarregiko aretoak jasoko du antzerki saio hau.

Sarrerak jada salgai dira Bordaxon, Aitzagan eta NOAUA! elkarteke egoitzan (bazkideentzat, sarrera 3 euro).



"KONTENEDORE BATEN ISTORIDAK" ANTZEZLANEKO IRUDIAN, PATXO TELLERIA ETA MIKEL MARTINEZ AKTOREAK.

NOIZ: Azaroaren 5ean, 22:30ean. NON: Udarregi Ikastolan.

JU NTX
ur n
k | n | us | Usur |
SI

Menuek astean zehar eta
ZENDOIA
taberna
Kale Nagusia 35
Tel: 943374021
asteburuan Menu bereziak

**TREN ETA AUTOBUSEN
NEGUKO ORDUTEGIA**

Ale gehiago eskura ditzakezu
NOAUA!ko egoitzan

Bordaberri, 3 Tel.: 943 36 03 21

NOAUA!n kazetari zein komertzial lanak betetzeko langilea behar dugu

Egun erdiz arituko den langile bat kontratatatzeko lan-deialdia egitea erabaki berri du NOAUA! Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak. Maiatzatik, publizitateaz arduratzen zen langile bat genuen: Maialen Saez aginagarra (lau orduko lan-saioan). Baina beste lantoki batean hasi behar duenez, bere postua beteko duen langilearen premian gara.

Hori dela eta, lan deialdi berri bat egitea erabaki du NOAUA!ko Zuzendaritza Batzordeak. Langile berria lau ordutan arituko da eta orain arteko publizistaren lanpostua ordezkatuko du.

FUNTZIOAK:

A. NOAUA! hamaboskariko eta web

guneko komertziala.

Eginbehar nagusiak: publizitatea lortu, publizitate moduloak diseinatu eta fakturazioa egin.

B. Kazetari-laguntzailea.

Eginbehar nagusiak: aldizkarirako eta web gunerako albisteak landu eta argazkiak atera.

PROFILA:

. Kazetaritzan edo publizitatean lizentziatua (baita azken ikasturtean matrikulatutakoak ere), edo informazio zientzietan lotura duen lizentziaturaren bat edo ikasketaren bat duena.

- Usurbildarrek lehentasuna izango dute.

- EGA edo baliokidea den agiria izatea.

- Gida baimena izatea baloratuko da.

- Komunikatzaile ona eta teknologia berrietan trebatua izatea.

ZER ESKAINTZEN DA:

- NOAUA! hamaboskariko publizitatearen arduradun izatea.

- Lau orduko lan-saioa gizarte segurantzarekin, gehi komisioak.

Curriculum-a azaroaren 12a baino lehen ekarri edo bidali:

NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 Z/G
20170 USURBIL

E-postaz, helbide hauetara igorri curriculum-a:

elkartea@noaúa.com
erredakzioa@noaúa.com

Euskal Txokoak martxan

Urrik martxan dira Euskal Txokoak. Euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten haurrei zuzenduta dagoen udal zerbitzua da. Azken bi urteotan, NOAUA! Kultur Elkartek kudeatu du zerbitzu hau. Iaz 60 haur inguru bildu ohi baziren, aurrean, ordea, haur kopuruak behera egin du nabarmen. Lehen aldiz, gurasoek kuota bat ordaindu behar izan dute, 18 euro



hilean, eta hori izan da matrikulazio jeitsieraren arrazoi nagusia (lehen, zerbitzu hau doanekoa zen). Ikasturtea martxan bada ere, oraindik bada izena emateko aukera.

Amaitu da perkusio ikastaroa

Perkusio ikastaroak aurreikuspen guztiak gainditu zituen. Izen-emate kopurua, esate baterako, uste baino handiagoa izan zen.

Ikasleak gustura izan dira Aintzira Gorosabel begiralearen esanetara.

NOAUA!k antolatutako ikastaro hau Zumarte Musika Eskolako ganbaran egin da.



Noaúa!

Usurbilgo ataria

Albisteak, foroak, inkestak, iritziak, ekitaldiak, lan eskaintza,...

www.noaúa.com

NOAUA! hamaboskaria on line

Aritzetako bizilagunen testigantza

Aritzetak Gipuzkoako puntu abeltza dirudi: lehen belaze handi bat zen, autopista egin zuten arte. Bigarren zinturoiarekin egiten hasi dira eta, hori gutxi balitz, erraustegiaren kontua dator orain. Badirudi gauza denak hona ekartzen dituztela". Andrenagusi baserriko Imanol Sarasolaren hitzak dira. Errausketaren aldeko eta kontrako argudioak jaso ostean, gertuko bizilagunen testigantzak jaso ditugu honakoan.

Azken hilabeteotan, solasgai nagusian bilakatu da errausketa. Argudioak argudio, gure inguruan asko dira Foru Aldundiaren egitasmoarekin asaldatuta daudenak. Aritzetako proiektua gauzatu balitz, ordea, gure protagonistek etxe parean jasan beharko lukete errauste-planta. Andrenagusi, Arpita eta Intxuitxabal baserrikoen kasua da. Euren hitzak bildu ditugu honako erreportajeon.



ERRAUSTE-PLANTAREN KOKAGUNETIK AUTOPISTAREN IRUDI HAU IKUSTEN DA.

Asier Labaka, Arpita baserrikoa: "Kezka handiarekin bizi dugu gai hau"

Arpita Zaharra duela 40 urte erren zen. Berria egin zen azpian. Gaur egun, zazpi lagun bizi dira Arpitan, horien artean, gure solaskideak: Asier Labaka. Donostian sortu den plataformako kide da. Asierrek uste du, epe luzera, bestelako alternatibak nagusituko direla. Orian kezkatuta dagoen arren, epe luzera baikor izateko arrazoiak badirela esan digu.



ARPITA BASERRIAN BIZI DA ASIER LABAKA.

Baserritik oso gertu dago aukeratu den kokagunea, ezta?

Extetik ez litzateke ikusiko; goiko terrenotatik bai, ordea. Sarbidea, ordea, oso gertutik pasako litzateke.

Loistegikogaina aukeratu zutenean nola erreazionatu zenuten?

Guk zerbait entzuna genuen, errausketa planta Urnietan egitekoak zirela, baina gaintetik jarraitu genuen eztabaida. Egunkarietan Aritzeta azaldu zenean orduan hasi ginen kezkatzen. Arnasak eta Diputazioak deituriko bileretan izan gara informazioa bildu asmoz. Gaia geroz eta kezka handiagorekin bizi dugu.

Oso denbora gutxian "ikastaro" azkar bat egin behar izan duzue. Batzuen eta besteen argudioak entzun ostean, zein ondorioetara iritsi zara?

Nik uste dut dioxinen eta furanoen asuntua bai dela kezkarria. Badira beste

alternatibak, ekologikoki eta osasun ikuspuntutik hain kutsakorak ez direnak. Adibidez, zaborren gutxitzea, berrerabilpena, birziklatzea, konpostajea... Sistema antzekoak erabili dituzte Gasteizen. Ekonomikoki, gainera, sistema horiek errentagarriagoak dira. Aritzetako plantak 210 milioi euroko aurrekontua duela diote. Txingudikoak, beste 60 milioi euro. Arabako berziklapen-plantak, aldiz, 20 milioi. Alde handia dago. Txingudikoarekin bakarrik Gasteizko hiru egin daitezke.

Informazio gutxi

Badirudi Odon Elorza izan daitekeela Diputazioaren egitasmoa alda dezakeen bakarretetokoa. Extebiztza arazoa konpondu nahi omen du Aritzetako lurrekin. Instituzio mailan, zerbait egiteko prest

dagoen bakarra Odon Elorza dela dirudi. Bestelako interesak dituela dirudi. Nik hartu dudana inpresioa da errausketaren alde dagoela baina ez duela Donostian egiterik nahi. Nire inpresioa da.

Zer eskatuko zenieke instituzioei?

Nik uste dut informazio gutxi eman duela Diputazioak, bereziki, beste alternatiben inguruan. Kanpotik ikusten dudana da, erraustearen aldeko apostua egin dutela eta gainontzeko alternatiba guztiak ez dituztela aztertu nahi izan, alde batera utzi dituztela. Alternatiben inguruan informazio falta handia dago. Ekonomikoki, hobeto ateratzen omen dira gainera.

Nola ikusten dituzu etxekoak, inguruko bizilagunak?

Jendea animoz ondo ikusten dut. Denbora aurrera egin ahala, errauste-plantaren egitasmo hau geldiaraziko dela uste dut.

Zuk uste duzu sortuko dela hori geldiarazteko dinamika?

Nik uste baietz. 2009an irekiko litzateke Aritzetako planta. Denborak aurrera egin ahala, jende gehiago azalduko da errausketaren kontra. Zerbait lortu nahi bada, jendea mobilizatu beharko da.

Nik informazioa biltzera animatuko nuke jendea. Informazio falta sumatzen dut.

Maidier Txapartegi, Intxuitxabal baserrikoa: “Gure baseritik 200 metrora edukiko genuke”

Usurbil eta Donostia arteko mugan dago Intxuitxabal baserria, baina baserria Usurbilgo eremuari dagokio. Lurrak, hala ere, Usurbil eta Donostia artean banatuak dituzte. Intxuitxabal baserrikoa da Maidier Txapartegi eta errauste-planta parez pare izango lukete, hala esan digu Maidierrek: “baseritik 200-300 metrora”.

Albistea jaso eta berehala, Usurbilgo Udalaren deia jaso zutela esan digu Maidierrek: “Udaletxetik deitu ziguten planoak ikustera hurbiltzeko asmoz. Plantak ez ditu gure lurra harrapatzen”.

Hasierako harriduraren ostean, kezka nagusitu zen Intxuitxabal baserrian. Maidier Txapartegiren esanetan, “luze joko du honek guztiak. Jendea orain gogoz ari da lanean”, baina denborarekin jendea nazkatu egingo ote den beldur da Maidier.

Etsita sumatu dugu Intxuitxabal baserriko gaztea: “zaila dago aurre egitea. Gure esperantza herri plataformetan dago”. Ibaetan bada talde bat lanean eta han egiten diren bileretan izan ohi dira Intxuitxabalkoak.

“Errausketaren eraginak denok jasango genituzke”

Maidier Txapartegi, hala ere, minduta dago askok egin dituzten komentarioekin: “zuzenean kaltetuak garelako mugitzen hasi garela esan izan digute. Guri parez pare tokatuko litzaiguke, baina



ARGAZKIAREN EZKERRETARA DAGO INTXUITSXABAL BASERRIA. ZUHAITZ ARTEAN, BEHERUNTZ, ARPITA.

errauste-plantaren eraginak denok jasan beharko genituzke”.

Honi lotuta, informazioa falta ere sumatzen du Intxuitxabal baserriko Maidierrek: “eztabaida erraustegiaren kokapenean zentratu da; baina ez dugu eko-parkea, konpostajea... eta antzeko alternatiben inguruko informazio nahikoarik”, adierazi digu Maidierrek.

Imanol Sarasola, Andrenagusu baserrikoa: “Badaezpada, inork ez du bere herrian jaso nahi”

Errauste-planta eraikiko balitz, Andrenagusitik ere gertu geratuko litzateke. Baina ez lukete begibistan izango, mendi magalean babesten baita Andrenagusu. Lehen borda bat zen, Imanol Sarasolaren birratoina bizitzen jarri zen arte. Duela hiru urte, goitik behera berritu zuten baserria.

Uda partean, errauste-plantaren kokalekua zehaztu zenean, Sarasola sendikoek ez zioten Foru Aldundiaren egitasmoari itxura onik hartu. Imanol Sarasolak esan digunez, “Aritzetak Gipuzkoako puntu beltza dirudi: lehen belaze handi bat zen, autopista egin zuten arte. Bigarren zinturoiarekin ari dira orain; eta hori gutxi balitz, erraustegiaren kontua. Badirudi gauza denak hona ekartzen dituztela”. Bigarren zinturoiaren ondorioz, Astigarragara joango den tunela ere, Andrenagusu ondotik pasako omen da.

Imanol Sarasola kexu azaldu da, berezi-

ki, komunikabideekin: “badirudi gai hau estali egin nahi dutela. Ez dute informaziorik eman nahi, susmo hori daukat. Estropadatan, esate baterako, mobilizazio ugari egin zen baina ez zuen apenas oihartzunik izan, ez telebistan ezta prentsan ere”, aitortu digu Imanol Sarasolak.

Errausketaren aldeko eta kontrako iritzien aurrean, Imanol Sarasola kezkatu azaldu zaigu: “Kalterik ez duela eragingo diote batzuk. Bakoitzak komeni zaiona esango du. Baina nik uste dut gauza serioa dela. Badaezpada, inork ez du bere herrian jaso nahi”.

Gasteiz eta Iruñeako ereduak

Gipuzkoan eta Bizkaian erraustearen alde egin den bitartean, Gasteizen eta Iruñean bestelako alternatibak jarri dira martxan; eko-parke edota konpostaje-ereduak. Imanolek ez du argi bereizketa hori: “akaso beharrezkoak izango dira errauste-plantak, baina Gasteizen eta Iruñean beste

planteamendu baten alde egin dute. Hemen, berriz, errausketaren alde egin nahi da. Zergatik ez dira Gasteiz eta Iruñeako ereduak Gipuzkoarako baliogarri? Batzuetan erabakiak uniformeagoak izan ohi dira. Gauza batzuetarako herri bat gara, eta beste gauza batzuetarako ez?”.

Zergatik bi planta?

Baten faltan, bi eraiki nahi izateak ere Andrenagusu baserriko Imanoli harrigarri egiten zaio: “bat Txingudin egingo da, bestea Aritzetan. Zergatik egin behar dira bi?”, galderari ez dio erantzun argirik aurkitzen Imanolek. Bizkaian bakarra dihoanean.

Bukatzeko, errauste-plantaren eragina uste baino zabalagoa dela ohartarazi digu Sarasolak: “askorentzat gu gara kaltetu nagusiak, hemen bizi garelako gu. Baina arrisku egoera uste dut bost kilometroko erradiora zabaltzen dela”. Erraustearen aurkako argudioei helduz, kaltea uste baino urrutirago iritsiko litzakeela, alegia.

Zaborra, gure bizimoduaren isla

Zaborra nola tratatu. Hor dago gakoa. Konponbidea bilatzen hasita, errausketaren alde eta kontrako argudioak izan dira nagusi azkenaldi honetan. Baina denbora gutxi eskaini zaio eztabaida honen atzean dagoen errealitateari: zabor-eragile handiak gara. Eguneroko-eguneroko, gutako bakoitzak 1,5 kilo zabor sortzen dugu gipuzkoarrok. Gure jokabidea aldatzeko, ordea, zer egiteko prest gaude?

Gure bizimoduaren isla da sortzen dugun zabor kopurua. Lehen, dendetan beirazko botilen truke dirua itzultzen ziguten, gogan duzue? Jada dendetan ez dira botilak jasotzen. Ez hori bakarrik. Kasu askotan, tetra-brikak kristalezko ontziak baino merkeagoak dira, kristalaren kalterako. Hori gutxi balitz, gaur egun produktuak bilgarri (edo enbultorio) ugariz saltzen dira. Produktua esku-ratzeko, kasu askotan, kanpoko plastikoa, kartoia eta eta produktua biltzen duen azken bilgarria kendu beharra dugu. Gero zaborretara doazen plastikoak, kartoiak, bilgarriak...

Belgikan egiten dutena kontuan izan beharko genuke: behar baino bilgarri edo enbultorio gehiago dituzten produktuei isunak jartzen dizkiete. Alemanian, berriz, era egokian bilduta dauden produktuek puntu berde bat daramate. Urrutira joan gabe, polita Nafarroako Montejurrako esperientzia. Bertako mankomunitatean, sortutako hondakin guztien %60a baino gehiago birziklatzea lortu dute.

Denon ardura

Arestian esan dugun bezala, gutako bakoitzaren ardura handia da. Eneko Imazek "Zaborra, zaborra, zaborra" artikuluan (Elhuyar Zientzia eta Teknika

